

Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Sentitu, pentsatu, egin

Askori oso ezagunak, ezagunegiak egingo zaizkizue izenburuko –sentitu, pentsatu, egin– hiru aditz hauek orden horretan jarriak. Beste askori ezagunak baino aspergarriak ere bai.

Barkatuko didazue, aita beranta izan naiz eta atzerapenez iritsi naiz Pirritx eta Porrotxen unibertsoa. Eta unibertsoa diot Kur-saetik etorri berria naizelako, eta BECen gertatutakoaren berri ere izan dudalako. Eta segitu aurretik barkamenak eta, era berean, eskerrak eman beharrean nago Josu Martinezi. Hark azaldu baitzidan, neronek zuzenean jaso aurretik, hiru hitz horiek gordetzen duten filosofia, *Itsasoaren alaba* bere dokumental zoragarri eta hunkigarriaren Donostiako Zinemaldian egin aurkezpenaren ondoren hartutako tragotik tragorako tartean.

Josu omen da sudur gorrien *fan*-ik sutsuenetakoa eta halamoduz portatu zen. Hitz gutxitan: “Ai, zeinen lehorrak garen euskaldunak sentimenduak azaltzeko momentuan!”. Zenbat kostatzen zaigun “maite zaitut”



INES URKUTIA

esatea. Zein gaizki konbinatzen ditugun izenburuko hiru aditzok.

Banan bana erabiltzea errazagoa gertatzen zaigu nonbait. Eta alor guztietan gainera. Sentitu asko sentitzen duenik bada noski. Baina ezin bigarren pausoa eman. Bada sentitu eta bigarrenek hirugarrenera jauzi egingen duenik. Sentitu eta egin. Bada bigarrenek aurrera egin ezin duenik. Pentsatu eta pentsatu... Beste konbinaketa posible bat:

pentsatu eta egin. Baina sentitu gabe. Muinik gabeko hezurra. Eta badira egin eta egin aritzen direnak, ez sentituz eta ez pentsatuz. Eta konbinaketa hauek sartzan dira armak eskutan dabiltzanak eta legebiltzarrean esertzen direnak.

Ai! Zeinen ondo joango litzazigukeen hirurak konbinatuz gero.

Espero dut Izarok, Josuren antzera, heldutakoan hirurak konbinatzea, nik egin nahiko nukeen moduan.

Milesker (Takolo), Pirritx eta Porrotx. Bihotzarekin sentitu, buruarekin pentsatu eta bi eskuak elkar bilduz egin. Orden horretan. Hobe-to joango litzaziguke. ■

« ‘Ai, zeinen lehorrak garen euskaldunak sentimenduak azaltzeko momentuan!’.

Zenbat kostatzen zaigun ‘maite zaitut’

esatea. Zein gaizki konbinatzen

ditugun izenburuko hiru aditzok



TXANDAN

Joxerra Garzia

Etorriaren ekarria



E m o -
ziozko
olatua-

ren eraginpean egin dira BECeko bertso finalari buruzko iruzkin gehienak. Ez da harritzekoa.

Ia hamabost mila lagun biltzea ez da huskeria, are gutxiago biltzeko arrazoia euskara hutsezko jardun bat bada, gaur egungo ikusgarrien irizpide estandarren arabera erabat geldo eta aspergarritzat jo beharko genukeen. Uste dut jende asko horrexek emozionatu zuela gehien, eta zilegi da noski (askoz handiagoak izanik, askoz gutxiagorekin emozionatzen dira gure auzotzar biak, zein bere hizkuntzan, inolako lotsarik gabe).

ko emozionatuko ziren, eta izango zen Maialenek (eta ez beste inork) irabazi zuelako poztuko zenik ere. Zilegiak dira noski emozio eta poz modu horiek guztiak.

Ni neu, azkenean txapela irabazi zuen bertsolariaren bertsokerak emozionatu ninduen gehien, maila horretan behintzat aurrez beste inork jorratu gabeko bidea baita. Bertsojera berri horretan, bi alderdiok bederen aztertu (eta gozatu) beharko dira patxadaz: barne-begiradaren protagonismoa (eta fintasuna), eta barne begiz ikusitako hori entzuleok ere barne begiz ikusteko moduan formulatzeko ahalegin berritzaile eta eskerga. ■

Beste batzuk, berriz, emakume batek irabazi zuela-